...eta kitto!
855 zkia.
2013-VII-5



# 2garren txupinazoA

**Eibar FT foballaren elitean**

Gaes-eko bainurako tapoiekin, zure belarriak guztiz babestuta izango dituzu eta ez duzu trabarik nabarituko edozein uretako ekintza egiten duzunean.

URETAN
BABESA ETA DIBERTSIOA
MUGARIK GABE!

BERRITASUNA

%25eko
deskontua uretako tapoietan

Promozio hau indarrean egongo da ekainaren 1-etik abuztuaren 31a arte.

Neoprenozko zinta elastikoa, orain diseinu berriarekin askoz ere moldagarriagoa.

Uretako tapoi malgu eta arinak. Ume eta helduentzat.

GAES Entzumen Zentroak

Bidebarrieta, 2 • Tel.: 943 20 61 14 • EIBAR

# IRAZABAL
clínica dental

**Antonio Murillo doktorea**
PERIODONTZIA, INPLANTOLOGIA, AHO-KIRURGIA

**Ainhoa Zulueta doktorea**
ODONTOLOGIA OROKORRA, PROTESIAK, ESTETIKA

**Susana Sierra doktorea**
ORTODONTZIA, OKLUSIOA

**Maitane G. Iñiguez doktorea**
ODONTOLOGIA OROKORRA, ODONTOPEDIATRIA

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostegunera
**08.00-22.00**
Zapatuetan
**10.00-14.00**

IRAZABAL HORTZ-KLINIKA
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com - **info@clinicairazabal.com**












# ASTEAN ESANAK

"Oraingoa bai euskaldun-euskaldunen gobernua. Aholkulari, aholkulari-orde eta zuzendarien artean, %83k euskal abizena du eta %49k abizen biak. Lopezen sasoian, bestalde, %48k zuen euskal abizenik eta %22k zuen abizen biak euskaldunak. Gure errealitateari gehiago gerturatzen zitzaion aurreko gobernua: %56k abizen `espainiarrak´ duelako eta %44k abizen euskaldun bat. Bi abizen euskaldunak %21ek du gurean"

(Manuel Montero, katedratikoa)

"Imaginatzen du edonork Espainiako foball talderik ez egotea munduko onenen artean? Ba hori berori gertatzen da unibertsitateei erreparatzen badiegu: estatuko bakar bat ere ez dago munduko 200 onenen artean"

(Luisa Botella, biologoa)

"Hainbat ekitaldi politikotan, kirol kantxetara biluzik irtetzen duten espontaneoen gisa, Femen nazioarteko mugimenduko nesken irudiak ikusita: edertasun estandarrak izango dituzte bertako aktibista izateko? Zergatik dira denak politak eta bular perfektuen jabe?"

(Edurne Uriarte, politologoa)

## *Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera*

JEUP!.- Etxe barrukoei deitzeko. Eup! *"Jeup!, iñor ba al da hamen?".*
JEURT!.- Idiei esaten zaie atzera egin edo buelta eman dezaten.

# eskutitzak

### EUSKALDUN KRISTAUEN ESKUBIDIAK NUN?

Parrokixa biren artian mobitzen naiz, eta aurtengo urtera arte euskerazko mezetara joan izan naiz. Baiña badaroiagu denboratxua ez daguala euskarazko mezarik San Juan bezperako domekan. Ha zelako amorrua sartu jatan elizara sartu eta berehala: abade erdelduna eta, gaiñetik, irakurgaixak (herriko jendiak irakurtzen dittu) be erderaz. Euskeraz kantuak besterik ez! Aspaldittik nekan gogua zeozer idazteko, baina bakiagaittik ez dot idatzi; baiña hau larregizkua iritzi jata. Nun dagoz euskal kristauen eskubidiak eta geureganako errespetua? Gazte asko ez bada elizara juaten, euskalduna izanez gero gitxiago.

**E.E.F.**

### ESKERRIK ASKO HERRIXARI!!!

Eskerrik asko txosna jarri daben Eibarko Ernai, Eibarko Herrira, EH Bildu Eibar, Jaixak Herrixak Herrixandako eta Eibar Jotake foballa taldiari. Egitarauan aktiboki parte hartu daben Eibarko Gazte Asanblada eta Gaztetxiari mojito eta sangria goxo-goxuak prestatziagaittik, ...eta kitto!ri etaratako argazki guztixengaittik eta Bizimina Plataformari halako paella espektakularra egittiagaittik. Txosnagunia eta herrixa dantzan jarri daben taldieri: Trikitilarixak, Akodas Bozine elektrotxaranga, Eutsi Taldea, Skakeitan Taldea, Gorka Beato eta Fari, Jake Mate, Dj Okerreko, Dj Rumaniak, Skandalue elektrotxaranga, On Musika eta eMePebo5t taldieri. Baiña bereziki, **zueri!!!!**, jaixak antolatzen, eta astero-astero batzen egon zarienori, turnuak egin dittuzueneri, musikan zaratia entzun bihar eta pazientzia izan daben bizilagun daneri (barkatu), egitarauan parte hartu dozuenori, mahaixak eta aulkixak mugidu dozuenori, txosnak kolorez bete dozuenori, suaren inguruan dantzan egin dozuenori, txosnan poteatzen ibilli diraneri, elektrotxarangarekin dantza egin dabeneri, karaokian desentonau dabeneri...

Azken fiñian, eskerrik asko **herrixari!!!** Hurrengo urtian indar gehixagorekin bueltauko garalako gutzi horri esker, zueri esker!!! Eta, azkenik, Eibarko Udalari mezutxo bat. Argi geratu da Eibarko herrixak zelako jaixak nahi dittuan: parekidiak, partehartzailliak, euskaldunak eta herrikoiak!!!!

***Jaixak Herrixak Herrixandako***

### TXOSNAK DIRELA-ETA...

San Juan sua zen, baina jaietan gure burua mindu-ta eta lotsatuta izan dugunok indarrak berritzen diharduqu oraindik ere. Kexa asko entzun eta irakurri ditugu Errebaleko zarata dela-eta. Baina Casa del Puebloko diskotekaz hitz egiteko beharra dagoela pentsatzen dut, bada garaia!

Casa del Puebloren atzean bizi garenok "Arkupeko" zaratak sufritzen ditugu. Ni eta beste auzokide batzuk kexatu gara; baina, errenta partidu politiko batek kobratzen duenez, alferrikako lana da. PSOEko taberna insonorizatu gabe dago; ez du musikaz lan egiteko baimenik. Baina musika topera du, eta baita plataforma bat ere bere DJ-aren lana ikusgarriagoa izateko.

Herritarrok partidu politikoen gehiegikeriak jasan behar ditugu euren arteko tratuak medio direla. "Nik txosnak jarriko ditut eta Alkateak diskoteka": Bizilagunon kalterako.

**E.M.M.**

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Silbia Hernandez
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.050 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!
**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria*



*Parte-hartzaille asko izan zan umiendako jokuetan.* LEIRE ITURBE

## Edarto ospatu zittuen sanpedruak Karmen kalian

**Aurreko barixakuan hasi eta asteburu osuan zihar** sanpedruak ondo baiño hobeto ospatu zittuen Karmen kaleko parkian, Beheko Tokia jubilau etxekuak preparautako ekitaldixetan. Barixaku arratsaldian umiak izan ziran protagonista nagusiñak: txokolate-janarekin hasi eta hainbat jokotan parte hartzeko aukeria izan eben jarraixan. Eguna agurtu aurretik, baiña, Gorriti eta bere abere txikixekin jolasteko aukeria izan eben. Zapatuan, San Pedro egunian, Koru Gaztearen parte-hartzia izan eban meziarekin ekin zetsen eguneko egitarauari eta arratsaldian, barriz, Nathali eta Sebastianen emanaldixarekin hasi, Kaleetan Kantuz-ekoen saiuarekin jarraittu eta Tukan taldiarekin amaittu eben jaixa.

Bestalde, aurreko domekan urteroko moduan San Pedro mezia eta konjurua egin zeben Akondia basarrixan, uztak txingorretik-eta babesteko.

## Antonio Sarasketa hil da

**Ekaiñaren 21ian, 95 urterekin, hil zan Antonio Sarasketa Errasti.** Gurasuak Eibarkuak izanda be, bera Gernikan jaixo zan aitta Astrara biharrera juan zalako, baiña denpora gitxi emon eban han, urte bi zittuala aitta hil jakolako eta Eibarrera bueltau ziran, ama laugarren semiarekin haurdun eguala. Baiña Antoniok 9 urte zittuala ama be hil jakon eta amamak hazi zittuan gaur egun Urkizu kalia danaren inguruan eguan Errasti basarrixan.

14 urterekin EAJn afiliau eta alderdi honeri lotuta emon dau bizitza osua. Iaz alderdixak omenaldixa egin zetsan Eibarko bonbardaketen 75. urteurrenian. Politikatik aparte, kirolzalia izan zan eta denetarik probau eban: mutikotatik pelotan jokatzen eban eta lehengusuarekin biñakakako txapelketaren bat be irabazi eban. Erremontian be jarduten eban, boxeuan be ibilli zan, baiña batez be foballian emon eban denpora gehixen: 1935ian Unión Deportiva Eibarresa taldian sartu eta gerran Castellongo taldiarekin be fitxa euki eban. Ezkondu eta gero Arrate taldia entrenatzen hasi eta urtiak emon zittuan horretan.



## AireArte 2013 azokia Errebalen




**Zona Diez alkartekuak ekitaldi berezixa preparau dabe** gaurko: AireArte 2013, moda, artia eta gastronomixia batzeko azoka berezixa. Asmua Estaziño inguruko dendarixak euren jarduerak batera eta aire librian partekatzia da eta horretarako Errebalgo aparkalekua aukeratu dabe. Estetikia be modu berezixan zainduko dabe: danak karpa bardiñetan jardungo dabe eta zuriz jantzitta egongo dira. Goizeko 11.00etan hasi eta gauerdixa pasauta itxiko dabe azokia. Azokaren inguruan, gaiñera, jarduera osagarrixak antolatu dittue: degustaziñuak (ardaua, gaztaia, rissotoa…), koktelerixia, pintura eta dekoraziño erakusketia, salsa eta gimnasia erritmiko erakustaldixak. Eta 20.30xetan moda desfilia egingo dabe Zona Diez dendetako arropekin eta Ion Fiz diseñadoriak ekitaldirako lagatakuekin.




## Dendarixak 1.000 euroko sari berezixa emon dabe

**Eibarko Dendarien Elkarteak 1.000 euroko txekia** emon zetsan astelehenian (uztaillaren 1ian) ekaiñeko irabazliari: Javier Simon Diezek eruan dau bezeruen artian hillero banatzen daben sari berezixa, Urkizuko Mugika harategixan erosketia egiñ eta aurreko barixakuan egindako zozketan bere txartela ateratzian. Horrez gaiñ, Elkartearen txartelarekin ordaindu daben bezeruen artian 20 eta 50 euroko txekiak banatu dittue. Argazkixan, Mugika harategiko Aitor Oregi, txekia Javier Simoni emoten.

## Negobide topaketia

**Eguenian Portalean Negobide enpresarixuendako** topaketia egingo da 13.30xetan hasitta eta hurrengo programiari jarraittuta: 13.45etan zeozer hartu eta 14.00xetan aurkezpena egingo dabe. Kontaktu erronda eta bestelakuak egiñ eta gero, 16.30xetan amaittuko dabe saiua. Juan nahi dabenak aldez aurretik izena emon biharko dau info@negobide.com-en edo 679271565 telefonora deittuta.

## Ordu aldaketa autobusetan




**Euskotreneko autobusen udako ordutegixa dago indarrian** ekaiñaren 24az geroztik Debabarrena, Kostaldea eta Urola zerbitzuetan: bestiak beste, Eibartik Express zerbitzuak egongo dira 12.45, 14.00, 16.45 eta 19.45etan eta Debatik, 13.20, 14.35, 17.35 eta 20.35ian. Eibartik Soraluzerako autobus batzuk kendu dittue, bestalde, uztaillaren 21era arte (13.05, 14.05, 17.05 eta 20.05) eta Soraluzetik Eibarrerako beste batzuk be (13.30, 14.30, 17.30 eta 20.30). Eibartik Arratera, astebarruan 15.00etan urtengo dau autobusak eta bueltakua 15.30xetan izango da. Domeka eta jai egunetan bost zerbitzu eskinduko dira eta zapatuetan bat. Gaiñontzeko autobus zerbitzuetako aldaketak konsultatzeko 902 543 210 telefono zenbakira deittu leike edo www.euskotren.es webgunian begiratu.

## Ernaiko gaztia epaitegira

**Eguazten eguardixan Eibarko epaitegi ingurua Ertzantzak zainduta** egon zan, 13.30xetan Gotzon Elizburu plaentxiarra barruan deklaratzera juan bihar zalako. Elizburu, Ernaiko beste hiru kiderekin batera, Urduñan egin zan Gazte Danbada jaialdixan Xabier Lopez Peña euskal preso politikuaren heriotza salatzeko martxan parte hartziagaittik inputatu dabe, "terrorismua goratzia" egotzita. Inputatuetako batek, Mikel Buttonek astelehenian deklarau eban Irungo auzitegixan. Martitzenian Irati Sienraren txandia izan zan, Bilbon, eta eguaztenian Gotzon Elizburuk Eibarren eta Mikel Morenok Getxon deklarau eben.



## Udako ordutegixa Portalea eta Pegoran

**Portalea kultur etxia ordutegi honeri jarraittuta zabalduko** dabe uztailla eta abuztuan: uztaillian astelehenetik barixakura 09.00etatik 20.30xetara (25ian eta 31n itxitta) eta abuztuan astelehenetik barixakura 09.00etatik 13.30-xetara (12tik 18ra itxitta egongo da). Eta Pegoran jendia hartzeko orduak hónetxek dira: iraillaren 15era arte bakarrik goizez, 08xetatik 13.30xetara. Iraillaren 15era arte 010 / 943708400 telefonuetara bakarrik goizez deitzeko aukeria egongo da, 08.00xetatik 14.00etara.




## autuan

### 50 URTEKUEN BAZKARIXA

**1963ian jaixotakuak urriaren 12xan egingo dabe bazkarixa. Juan nahi dabenak 80 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 20955035009112868907 kontuan, izen-abizenak ipiñitta. Jatetxian sartu leikiazen lagun kopurura aillegatzian izen-emotia itxiko dabe. Informaziño gehixagorako, idatzi hona: 1963eibar2013@gmail.com**

### IRUZURRA

**Udaltzaiñak aditzera emon dabenez, egunotan baten bat etxerik etxe informatika ikastaruak eskintzen dihardu Armerixa Eskolaren izenian, baiña ikastetxiak horrekin zerikusirik ez dakala argittu dau. Horregaittik, argi ibiltzia gomendatu dabe.**

### TXOSNAK IPINTZEKO

**Arrateko jaixetan txosnia ipiñi nahi dabenendako eskaerak egitteko epia zabaldu dabe. Interesa dakenak Pegoran presentau biharko dabe eskaera orrixa bihar dan moduan beteta uztaillaren 18ko 13.30xak baiño lehen.**



# JOSE ANTONIO AGIRRE ARRIOLAren

2. URTEURRENA (2011-VII-4)



***"Beti izango zaitugu gure bihotzean"***

ZURE FAMILIA

## IMANOL MAGRO (Berria-ko kazetaria)

# "Kazetariago bueltatu nintzen olinpiar jokoetatik"



*Rikardo Arregi sariek, azken edizioan, Berriaren bidea eta Alex Gurrutxagaren literatura kritikak saritzeaz gain, Berriak berak Olinpiar jokoei egindako jarraipena saritu zuten. Taldeko lan horretan jardun zuen Londresetik Imanol Magro eibartarrak, orain dela urte batzuk ...eta kitto!-n ere lehen urratsak eman zituena. Sari nagusi horretan paperean hiru astez egindako gehigarriak eta Interneteko jarraipenak, telebista saio eta guzti, hartu dira kontuan.*

***- Sari konpartitua da eman dizutena, baina espero zenuen halakorik jasotzerik?***

Ustekabea izan da guztiz; horrelakoetan, gainera, sari gutxi izaten baita kirol kazetaritzarako. Jakin izan dudanez, aurretik behin bakarrik jaso dute kirol arlokoek, Xabier Usabiagaren kasuan. Gure kasuan, lan korala izan da batez ere: mardula eta handia aldi berean. Esparru asko ikutzea eskatu diguna eta epaimahaiak ere bestelako ikuspuntu hori baloratu duela uste dut. Horrela ikusita, gure aukerak bagenituen, egia esateko.

***- Egin duzuen lanean zer azpimarratuko zenuke bereziki?***

Arlo horretako kazetagintzaren duintasuna aldarrikatu izana, paperezko lanarekin telebistako programa ere uztartuz. Euskal Herriko kirolariak lehenetsi genituen eta gertutasuna eskaini, jendearentzat heroi txikiak bihurtuz. Aldi berean, ikuspuntu soziala ere eman genion lanari: joko olinpikoen kontrako plataformari tartea eginez, sarrerak saltzen ez zirelaeta horren ingurukoarekin, higiezin agentzietan jokoek izan zuten inpaktua delaeta... eta beste hainbeste arlo jendeari gerturatuz.

***- Londresko esperientziak zer eman zizun pertsonalki? Aurretik egonda zinen?***

Hitz batean laburbiltzeko, kazetariago etorri nintzela esango nuke. Beste dimentsio bat eman zion nire lanari eta baita aldaketa bat ere. Lehen egonda nengoen Londresen, turista moduan; oraingoan desberdina izan da. Hiru aste hauetan tankera sozialeko arloa landu izan dut gehienbat eta, egia esan, kazetari moduan esperientzia politagoa izan da.

***- Ahalegin berezia egin behar izan zenuten hara joan aurretik?***

Ingeles akademian burubelarri sartu eta banuen zer hobetzeko, hitzezko ingeles mailari erreparatzen badiogu batez ere. Horrez gain, kirol minoritarioak deitzen diren horien gaineko informazioa jaso behar izan genuen, judoaren edo borroka librearen inguruan jakin beharreko gutxienen jabe izateko. Hara joan aurretik, bestalde, aurrez-aurre izan ginen hemengo kirolari guztiekin, harreman pertsonal hori landuz. Olinpikoak izandakoekin ere egunero lantzen genuen esparrua: horrekin lotuta, guk ateratako Mexikon bizi den Ibone Belaustegigoitia atleta-ohiari Sabino Arana saria eman zioten geroago. Eguneko errutinatik irteteko aukera ematen zuten istorio bereziak kaleratu ditugu.

***- Esperientzia errepikatzeko gogoz?***

Hiru urte barru Rio de Janeirora joateko prest nago. Berriak orain arte beti bidali izan ditu bi lagun joko olinpikoetara eta, zalantzarik ez dut, gustatuko litzaidake han izatea.

***- Baduzu buruan kazetaritza arloan egitea gustatuko zitzaizun zeozer eta oraindik burutzeko tarterik aurkitu ez duzunik?***

Epe motzera begira, oporrak hartzea; hor ditut, gainera, ate joka. Bestalde, apustuen mundua da aspalditik atentzioa pizten didana. Noizbaiten pentsatu izan dut horren inguruan liburutxo bat egiteko gai izango naizela, hainbat arlotatik ikusita apustu esanguratsuenak izan daitezkeenekin: arlo guztietakoak, bereziak, zergatik apustu bihurtu diren, zergatik kirolari bat bere mugaren bila abiatzen den... hori guztiarekin.



**ANTONIO SARASKETA ERRASTI**

*2013ko ekainaren 21ean hil zen, 95 urterekin*



***EZ AGURRIK, EZ ADIORIK***
***GERO ARTE BAIZIK***

**FAMILIAREN IZENEAN**, eskerrik beroena gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



BARREN

## AINARA ARGOITIA (Barren-eko kazetaria)

# "Gai sozialak dira gehien interesatzen zaizkidanak"

*Ainara Argoitia eibartarrak Rikardo Arregi kazetaritza sarien 25. ekitaldiko sari berezia jaso du. ...eta kitto!-n hasitakoa, gero Egunkarian jardun zuen eta gaur egun Barren-en dihardu lanean. Tokiko hedabideen funtzioaren adibide "ezin hobea" da epaimahaikoen esanetan. Berak egindako bi erreportaje aipatu zituzten bereziki: bat, 36ko gerrako testigantzekin ondutakoa; eta, bestea, Txillarre baserriaren inguruan egindakoa.*

***- Espero zenuen halako saririk edo ezuste handia izan da?***

Ezustea, baina polita. Handia niretzat, nire aurretik jaso dutenei erreparatzen badiegu batez ere. Euren ondoan edo atzetik egotea ohore handia da niretzat. Badakit zeintzuk izan diren sari hori irabazi dutenak eta luma onenak daude tartean, asko estimatzen ditudan kazetariak daude.

***- Zure lau lan aipatu zituen epaimahaiak. Euretatik, zeinekin geratuko zinateke? Zein izan da gehien eman dizuna?***

Asisko Urmenetari eta Otegiri egindako elkarrizketekin batera, epaimahaiak Pello Rubio "Txillarreri" egindakoa eta 36ko gerraren inguruko erreportajea, azken bi horiek nabarmendu zituen batez ere. Pellori egindakoan, esango nuke berak eskainitako lehenengo elkarrizketa izateak indar gehiago izan duela, gauza berri askorik ez baitzuen kontatu. 36ko gerraren ingurukoak, bestalde, gehiago bete nau: lanketa handia eskatu arren, asko gozatu dut adineko jendearekin egotean... Etxean txikitatik izan dut gure belaunaldiko askok izan ez duten zortea eta banuen gerraren sasoiko berririk, frontea Barinagan egon zela-eta halakoak familiatik jasota. Eskertu nahiko nuke elkarrizketatuen prestutasuna, bizipen gogorrak gogorarazi behar izan dituztelako askotan, batzuk argitara ezin nituenak eman. Hala ere, askatu dira eta nik asko ikasi dut eurengandik.

***- Zein erreportaje edo kazetaritza mota duzu gustoko?***

Gai sozialak, batez ere; azken urteotan, dena dela, gai politikoei ere hartu diet gustoa. Lehen astunak egiten zitzaizkidan azken horiek, baina egunero lantzearekin batera, horiekiko gero eta gertutasun gehiago igarri dut. Hala ere, gai historikoak-eta gehiago betetzen naute. Kazetaritza pausatuagoaren aldekoa naiz, gure eguneroko lanean erraztasunik ez dugulako gauzetan sakontzeko: ez astirik, ezta lekurik ere, esparru hori indartzeko.

***- Epe laburrera, zein lan gustatuko litzaizuke egitea? Zein erreportaje itxaroten?***

Bada eskatuta dagoen erreportajea, egoera konkretu baten inguruko bizipenak-eta jasoko zituena. Une honetan, dena dela, ezin dizut gehiago aurreratu.

***- Zelan ikusten duzu euskal kazetaritza orokorrean?***

Nahiko ondo. Lan txukunak kaleratzen dira, eta bitarteko gutxirekin. Lan profesionala maila handikoa izanda ere, hizkuntza politika ingurutik esaten dena askotan ez da ondo ezkontzen gero benetan ematen duten laguntzarekin.

***- Herri-aldizkariok betetzen dugun eginbeharren inguruan, zertan aldatu beharko genuke? Zertan eguneratu?***

Hor ere lan profesional onak egiten direlakoan nago eta Rikardo Arregi sariek hori erakusten dute, oihartzun apalagoko sariak izan arren. Aldatzeko ere gauza askotxo egongo ziren; baina, egia esan, egunerokoak jaten gaitu... Hori ere normala da astekaria bi lagunen artean egin behar denean. Bestelako atalak ere sortuko nituzke. Hala ere, lan txukuna egiten delakoan nago eta jendeak estimatzen duela, batez ere modu horretan beste inork eskaintzen ez duen herri-informazioa jasotzen dutelako.

---

**XOLE AZKUE FERNANDEZ**

**(Antonio Narbaiza Mugerzaren alarguna)**

**2013ko uztailaren 3an hil zen, 92 urte zituela**



**Sendiaren partetik**
**ESKERRAK zuen dolumina adierazi diguzuen guztioi**

*Ez al hator, Xole?*
*Etzekiñat ba, ura ziharo hotza zegon.*
*Ur epelen zain geratuko naun*
*Kantauri zaharrari begira.*

# USTEKABE etenbarik HARROBIA lantzen

UDAREKIN BATERA HERRI GUZTIETAN JAIAK PERRETXIKOAK LEZ ugaritzen hasten dira eta Ustekabe fanfarrearen agenda ere betetzen doa. Azken egunotan Urkiko jaiak alaitzen, sanjuanetan lehenengoz gazteei Untzagatik Urkizura bitarteko kalejiran laguntzen eta umeen danborrada girotzen izan ditugu eta astelehenean bertan Eibar kirol elkartearen igoeraren ospakizunaren aurretik erdialdeko kaleak musikarekin alaitzen jardun zuten. Eta datozen egunotan ere Eibartik kanpora hamaika saio eskainiko dituzte han eta hemen.

Baina horiei aurre egiteko indartsu dago fanfarrea, etenbarik kide berriak batzen zaizkio-eta. Taldean sartzen azkenak ekainaren 24ko umeen danborradan parte hartzen izan ziren Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako hamar ikasle gazte dira, sei saxofoiarekin eta beste lau flautarekin. Ezin ahaztu Ustekabe fanfarrea Musika Eskolako hainbat ikaslek sortu zutela 2000. urteko neguan. Ordutik hona dozenaka lagun pasatu dira fanfarretik, horietako gehienak Musika Eskolako ikasle edo ikasle ohiak. Ustekabekoek diotenez, "denok ez dugu bertan ikasi, baina gure harrobi naturala hori da eta beti argi izan dugu ondo zaindu behar dugula".

Berez, umeen danborradan beste ikasle batzuk tronpeta, klarinete eta perkusioarekin ere parte hartzea zen hasierako asmoa, baina hainbat arrazoirengatik bereziki eurentzat prestatutako entseguetara joan ez zirenek ez zuten jo. Zailtasunak egon badaudela onartzen dute txarangakoek: “Guri lagungarri izan dakiguke euren laguntza, baina hamar pertsonaren lehen aldia izanik eroso egoten lagundu behar diegu… eurentzat ere zenbait kantu ez dira errazak. Gainera entsegu bereziak egin behar izaten ditugu eta horietan parte hartzen izan ziren hamar ikasleek emanaldia prestatzeko txukun jardun dutela esan behar dugu”.

Helburua harrobia lantzea da eta aurretik ere egin dituzte horrelako ekimenak: 2007an Musika Eskolako 50 ikasle irten ziren San Andres jaietan txarangarekin batera, "Pastelero", "Neskak", "Sinosuke" eta "Santimamiñe" kantuak jotzen eta harrezgero Ustekabe ia osorik berritu da. Orduan sasoian ikasle zirenetako askok osatzen dute gaur Ustekabe, tartean Xabier Oruesagasti presidentea: “Nik orduan 11 urte nituen eta ilusio handia egin zidan… Horregatik, guri eskaini ziguten aukera bera eskaini nahi diegu orain ikasle direnei ere. Garrantzitsuena harrobia lantzea da eta, horretarako Musika Eskolako irakasleen inplikazioa ezinbestekoa da, musika taldeen etorkizuna bermatu nahi badugu”.

Musika Eskolako ikasleei lehen esperientzia eskaintzeaz gain, azken urtean zazpi musikari berri ere sartu dira Ustekabe fanfarrean: Asier Rodriguez, Markel Corral eta Xabier Hernando (perkusioa); Unai Kabanzon (tronpeta); eta Ruben Arriola, Marta Garin eta Marina Aperribai (saxofoia). Guztira 15 eta 27 urte bitarteko 19 kidek osatzen dute Ustekabe une honetan.



*Danborradan lehenengoz jo zuten hamar lagunetako batzuk astelehenean ere ibili ziren Ustekaberekin.*



## La Salle Azitaingoek agur esan diote ikasturteari

Kurtsoa amaituta, La Salle Azitain ikastetxekoek esker ona azaldu nahi izan dute: "Irakaskuntza Sustatzeko Elkargoak (ISE) eta La Salleko Zuzendaritzak ikasleak zoriondu nahi ditugu 2012-2013 izandako emaitza onak direla-eta. Bide batez, eskerrak ematen dizkiegu irakasle, familia, IGE, laguntzaile eta komunikabideei egindako lanarengatik eta gure hezkuntza proiektuan eragile izateagatik. Opor zoriontsuak izan ditzazuela!".



**BITTOR LUIS**

**1. URTEURRENA (2012-VII-7)**

*Betirako izango zara gure bihotzetan*

FAMILIAREN PARTEZ



# Eibarrek ilusiñua piztu dau



*Egun haundixak izan dira herrixan. Behin Sanjuaneri agur esanda, Eibar Foball Taldiaren mailla igoeriak ilusiñua ekarri dau herrira, eta domeka arratsaldian hasittakuak jarraipena izan eban astelehenian. 500dik gora lagun juan ziran L'Hospitaletera, taldiari lagundu eta jokalarixekin bat egittera; eta juan ezin ziranak Astelena frontoian batu ziran partidua ikusi eta gozatzeko. Behin neurketa amaittuta, Ibarkurutzeko itturrixak hartu eban protagonismua ospakizunetan. Astelehen goiza iñoiz baiño alaixagua izan zan foball zaletuentzat eta zaliak ez diranak be kutsatu zittuan ilusiño horrek. Arratsaldian jendia jokalarixak noiz etorriko zaiñ izan zan. Arraten lore eskaintza egiñ, herrixan paseillua eta, ondoren, Untzaga plazia jendez jositta agertu jakon Eibar FT-ko delegaziñuari. Gozatzeko momentuak izan ziran bizittakuak, beste edozein unetan errepikatzeko modokuak.*

Denboraldi bikaiña egin dau Gaizka Garitanok zuzendu daben denboraldixa, bere multzoko lidergua lortzia eziñezkua egin jakon arren. Alavesengandik gertu behin baiño gehixagotan, baiña goren-gorenera jauzixa eziñ emon. Halanda be, gabonak arte etxeko partidu guztiak irabazi zittuan taldiak eta baita Kopan bikain jardun be: Athletic-a kanporatu (12-12-12) eta Championseko Malagari be azken unera arte eutsi zetsan. Horren ondoren, makalaldixa izan zeban; baiña esan geinke ondo etorri jakola, denboraldixa beste iñork baiño hobeto amaitzeraiño. Aurten, gaiñera, marka barrixak ezarri dittu taldiak: esaterako, iñoiz lortu gabeko zortzi garaipen jarraixan. Halanda be, badittu oindiokan beste batzuk lortzeko klubaren 75. urteurrenera iritsi baiño lehen.





## ALEX ARANZABAL:
# “Garitanok jarraitzea aurretik genuen adostuta”



ARRATEN



***- Bidaia, ospakizunak... Zelan joan dira azken egun hauek? Nekatzeraino?***

Lehertuta amaitu dugu. Intentsitate, emozio eta tentsio handiko egunak izan dira. Lo gutxi egin dugu eta, ospakizunetatik haratago, Foball Profesionaleko Ligaren bilera ere izan genuen Madrilen.

***- Partidua, dena dela, erosoa izan zen eibartarrentzat. Batzuk diotenez, aspertzeraino.***

Nik ez nuen horrela bizi izan. L'Hospitaleten deseroso sentitu nintzen eta beldurrez, eurek gola sartu eta kanporaketan sartuko zirelakoan.

***- Igoerak zein onura dakar taldearentzat?***

Abantaila mordoa ikusten dizkiot gertatutakoari, bai klubarentzat eta baita herriarentzat ere. Eibar moduko herria eliteko foballean kokatu dugu berriro: jakin behar dugu play-offetan jardu dutenen arteko herri txikiena dela gurea. Kirol arloan lortutakoarekin batera, ezin dugu baztertu horrek ekonomikoki duen garrantzia: hamabostean behin, A Coruña, Zaragoza, Xixonetik etorritako jendea izango dugu gure artean eta horrek bizitasuna emango dio herriari. Gaur egunean bizi dugun krisi egoeran, energia positiboak berreskuratzeko aukera eskaintzen digu.

***- Zeozer txarrik izatekotan, goian ibili beharrean beheko postuetatik gertuago ibiliko garela akaso?***

Argi dago txipa aldatu behar dugula: aurreko denboraldiotan izan dugun irabazteko behar hori baztertu eta badakigu kristoren aurrekontua duten taldeekin lehiatu beharko dugula. Arratoi buru izatetik lehoi buztana izatera pasatu gintezke; ahalegindukо gara hortik gora jotzen.

***- Hurrengo hamabostaldian lana pilatuko zaizue, ezta? Orain duzue denboraldia prestatzeko une erabakigarria...***

Behar asko egin beharko dugu egunotan: bulego lana handia da, izan Foball Profesionaleko Ligan, Goi Mailako Kirol Kontseiluan, tramitazio asko... Taldeak, dena dela, aurtengo bizkar-hezurrari eutsiko dio. Dinamika horretan jarraitu behar dugu, horretan sinesten dugulako eta konfiantza ere hortik datorkigulako. Akaso exijentzia maila igo beharko dugu, aurrean dugun erronkari aurre egiteko.

***- Gaizka Garitanok bere postuan jarraituko du?***

Bai. Play-offa amaituta eman dugu jakitera, baina aurretik zegoen horrela erabakita. Aurretik ez badugu kaleratu, taldearen lanean nahasterik ez sortzeko izan da; baina eginda zegoen.

***- Bazkideek igarriko dute maila igotze hau kuotetan-eta? Zenbat bazkide dituzue gaur egun? Kanpainarik egiteko asmorik?***

Hori batzarrean aztertuko dugu, baina orokorrean gaur egungo apaltasunari jarraituko diogu, hori baita gure filosofia. 2.600 bazkide ditugu (Oviedotik etorritako bost horiekin batera) eta, biztanlego ratioari erreparatuz, pozik egon gintezke, populazioaren %10aren bueltan gabiltzalako. Kanpainari dagokionez, bizi izan dugun play-offa baino marketing hoberik ez dago.

***- Realak edo Athletic-ek jokalariak lagako dizueten itxaropena izango duzue, ezta?***

Akordioa Realarekin dugu eta berori hobetu eta sendotzeko asmoa dugu. Athletic-ekin, bestalde, harreman bikaina dugu, baina baita Osasuna, Espanyol eta Valentziarekin ere, esaterako. 2. A maila erakargarria da eta gure taldea formazio prozesurako leku aproposa izan daiteke.

***- Taldeak inoiz baino opor motzagoak izango ditu. Horrek kalterik ekar dezake hurrengo denboraldirako?***

Ez dut uste: bi-hiru asteko oporrak izango dituzte, dena dela, eta une honetako neketik errekuperatzeko balioko dielakoan nago. Horrelako nekeak errazago sendatzen dira.

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

K21
MUGICA
ITURGINTZA
Aire Egokitua, Iturgintza,
Gasaren instalazioa, kalefakzioa,
petrolio-produktuak, bainuen
erreformak eta abar...
HANSGROHE kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia

Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## 26. DENBORALDIXA ZILLARREZKO MAILLAN

Eibar Foball Taldia, domekakuarekin, laugarrenez igo da 2. A maillara. Aurretik beste 25 denboraldi emon dittu zillarrezko maillan. 1952-53an lortu zeban Eibar FTiak lehelengoz 2. maillara igotzia 3. maillako txapelduna izan ondoren. Sestaori bederatzi puntuko tartia kendu zetsan igotzeko denboraldi hartan eta lau urte egin zittuan jarraixan mailla horretan, 57-58xan kategorixia galdu arte. Sasoi hartan ez zeguan 2. B maillarik eta, promoziñoko partidu asko jokatu arren, urtiak egin zittuan taldiak zillarrezko maillara barriro bueltatu arte: baziran taldiari igotzia interesatzen ez jakola pentsatzen zeben zaletuak. Hamalau promoziñoren bueltan, 1986ko ekaiñaren 14an igo zan taldia 2. B maillara, Juanjo Arrietaren eskutik; eta handik urte bira 2. A maillarako jauzixa emon zeban, Alfonso Barasoainen eskutik. Hor hasi zan 18 urte iraun zeban sasoi loriatsuena Eibarrentzat (88-89ttik 2005-06ra arte) eta horrek bihurtu zeban gure taldia 2. maillako dekano. Horrez gain, 1. maillara igotzeko puntu-puntuan be egon zan taldia: Mendilibar, David Silva, Llorente, Moises, Iraizoz etabarrekin. Mailla galdu eta, Manixen eskutik, berehala errekuperau eban Eibar Foball Taldiak, baiña horko bidiak denboraldi bi baiño ez zeban iraun. Gero lau urte emon dittu taldiak oin barriro be 2. mailla hori eskuratu arte. Hori bai, urtero-urtero igotzeko promoziñuan izan da beti eta gitxi-gitxi falta izan jako helburua lortzeko.



















# OSASUN GIDA

## Dentistak

- odontologia biologikoa eta orokorra
- terapia neurala
- osteopatia

**miren albistegi sojo**
HELBIDE ETA TELEFONO BERRIAK
Errebal, 14
t. 943 201 721

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk.
Tfnoa: 943 20 72 17

RPS 336/05
**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57
**AMAÑA**
**HORTZ KLINIKA**


**GASTESI**
Hortz-Klinika
Ane Gastesi
Odontologia orokorra / Ortodontzia
Inplanteak / Laser Teknologia / PADI
Bidebarrieta, 10 - 2. eskuma 943 70 00 90

**UNTZAGA**
**hortz-klinika**
Odontologia orokorra / Ortodontzia / Inplanteak
Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

**ARAT Hortz Klinika**
ARRETA-ZERBITZU INTEGRALA

Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa...
Clínicas dentales UniverSalud
TORIBIO ETXEBARRIA, 4 - 1. esk. Telf: 943 20 18 51

RPS 04/02
**IRAZABAL**
clínica dental
Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**
- Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- Min-Unitatea
- Inkontinentzia urinarioak
- Kirol medikuntza
- Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

R.P.S. 149/12
**bista eder**
clínica dental · hortz klinika

Irribarreak gaztetu egiten gaitu
Inplante eta Hortz-Estetikan adituak
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75

**hortz-klinika**
**B. IZAGIRRE**
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85


**invisalign**
Ikusten ez den ortodontzia
Ortodontzia ume eta helduentzat
**Mª Dolores Olaizola Doktorea**
EIBARKO ZENTRO MEDIKOA
Urkizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf.: 943 120 200 - 943 425 706
www.mariadoloresolaizola.com


Monica Martín Fonseca
DOKTOREA
644 kolegiatu zkia.
**calbetón** hagin klinika

Tel. / Faxa: 943 03 33 03
Fermin Calbeton, 6 - 1. A
clinicacalbeton@euskaltel.net

## Estetika klinika


**abontza**
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad
**MEDIKUNTZA** ESTETIKOA
**KIRURGIA** ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.
FISIOTERAPIA ZENTRUA
ARRAGUETA, 20
TLF: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zkia.
OSTEOPATIA
NEUROLOGIA
NEURO-ESTIMULAZIOA
S. Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

## Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada
JOSE ALBERDI
ARRATSALDEZ
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika
· Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)
Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
943 12 14 93

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050
ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943, 799746
PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA
Maider Lopez Etxeberria
Arragueta 2 Bis-B, Behea C
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T.ORTOPEDICO
Iñaki Rivero Zabaleta
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
Tel. 675 706 807
Coro Ortíz de Urbina
PSIKOLOGOA
G201987 kolegiatua
- Masterra Praktika Klinikoan
- Patricioner P.N.L.
- Master P.N.L.

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
Ana Artamendi
- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa
T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
Oscar Mondragon Lili
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943 206823 eta 686 859023

## Radiologia

MADINA RADIOLOGIA
- Mamografiak
- Dentsitometriak (osteoporosi ikerketa eta balorazioa)
- Hortz-scanner 3D-etan (inplanteak ezarri aurreko hezur baloraziorako)

TRAUMATOLOGOAK: Azkarate eta González Bosch doktoreak
TRATAMENDUAK hazkuntza faktoreetan aberatsa den plasmarekin
Toribio Etxebarria, 4 - 1. ezk. 943-202857

**Hemen zure tokia izan nahi baduzu: deitu 943-206776 telefono zenbakira**

# Narbaiza nagusi Udaberri zonaldeko finalean

**Eibartarrak 22-10 irabazi zion Zumarragako Izagirreri** Bergaran jokatutako eskualdeko lau eta erdiko finalean: eskuak minduko zitzaizkion beldur izan arren, sake eta erremateari esker erraz gailendu zen Klub Deportiboko ordezkaria. Ez zuen zorte bera izan Zubizarretak Urretxun eta 7an geratu zen Ibañezen aurkako finalean.



San Juan Torneoari dagokionez, Zubizarreta eta Txurrukarentzat izan zen txapela, finalean Arrizabalaga eta Agirresaroberi 22-17 irabazi eta gero, azken bost tantoekin 17nako berdinketa apurtu eta gero. Lau eta erdiaren barruan, Bengoetxea izan zen garaile berriro be, Arrasateko Zuazua 3tan lagata. Aurretik jokatutako bi partidutan ondo jardun zuten zortzi pelotariek: alebinetan, Gonzalez eta Albizuri Abalos eta Gutierrez baino gehiago izan ziren (18-11); eta, benjaminetan, Ferrero eta Azkargorta 18-12 nagusitu zitzaien Sanchez eta Simoni.

# Ruibal saskibaloi taldeak entrenatzailea aldatu du



**1. mailari eusteko asmoarekin dator Jon Arriaga** jokalari-ohia Ruibalera, azken bi denboraldietan Miguel Angel Sanchez entrenatzaileak egindako lanari jarraipena emateko. Eibarko taldeak aurten ez du lan erraza izango, lehen ere hirutan igo baita maila horretara baina bakar batean ere ez baitu mailari eusterik izan. Taldeak hiru edo lau jokalari berri behar ditu eta eskualdean bila hasi da dagoeneko; bestalde, interesa dutenek proba egin dezakete martitzen edo eguenetan kiroldegira joanda 21.00etatik aurrera edo mezua bidalita baloncestoeibar@hotmail.com helbidera.



*Partidak amaitu ondorengo irabazle guztien talde argazkia.*

# Gros Xake Taldea garaile berriro Kruzeta Memorialean

**18 talde eta 70 jokalarik hartu zuten parte** Untzagan jokatutako Eibarko Hiria Jose Mari Kruzetaren omenezko 29. xake txapelketan. Lau ordu iraun zuen jardunaldiak eta Donostiako Gros Xake Taldea nagusitu zen, Errenteriako Fomento Cultural eta Arrasate Arlutzen aurretik. Gure herriko Deporrek hiru talde aurkeztu zituen, honako jokalariekin: A taldean, Rikardo Bastida, Edu Olabe eta Haritz eta Julen Garro; B taldean, Emilio Freire, Xabier Beorlegi, Jon Arana, Mikel Baena eta Iker Narbaiza; eta Ermuko jokalariekin batera osatutako C taldean, David Perez, Ion Gomez, Jose Antonio Garrido eta Guillermo Llorente.



# Picos de Europara hurrengo asteburuan joateko aukera

**Klub Deportiboko Mendi Taldeak Picos de Europara irteera** antolatu du hurrengo astebururako, hilaren 13 eta 14rako. 55 euro ordaindu beharko dute federatuek eta hamar gehiago, 65, ez federatuek. Izen-ematea egiteko eta informazio gehigarria jasotzeko, Deporreko bulegoetara jo dezakezue martitzen eta eguenetan, 19.30etatik 20.30etara.

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• Koroak • Eskelak • Hilarriak • Agiriak
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

EMAKUME ETA GIZON MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
merkalitatea
☎ 943 20 22 33
Zuloagatarren, 7

# Urbateko igerilarien erakustaldia Gipuzkoako txapelketan

**Martin Aizpiri, gainera, txapelketako onena izan zen,** Aitzol Arrillaga 5. postuaz jabetzen zen bitartean. Azken honek bizkar erako 50, 100 eta 200 metroko probak irabazi zituen, Nekane Tejedorrek bular erako 100 eta 200 metroko probak, Aizpirik libre erako 200 eta 400ekoak eta, azkenik, Ioar Urkirik 400 estilokoa irabazi zuen eta Nora Varelak 200 estiloko proba. Erreleboetan ere podiuma zapaldu zuten eibartarrek, nesketan zein mutiletan. Ander Romaratek, bestalde, Espainiako marka egin zuen 50 metroko bularreko proban.



*Urteetako lanaren fruitu dira azken emaitzak.* ARTXIBOA

Asteburuari begira, Euskal Herriko txapelketak jokatuko dira: Gasteizen junior eta senior mailatan eta Tolosan infantil mailakoak. Horrez gain, bihar Debako Itsasmila izango da jokoan, Urbatekoek hain berea duten proba berezia: iaz, esaterako, podium osoa bereganatu zuten.

# Golf txapelketaren bigarren edizioa



**Bihar, arratsaldeko 16.00etan hasita, Eibar Golf Pitch & Putt klubak** antolatutako bigarren golf torneoa jokatuko da Ipuruako anexoan. Iaz sortutako ekimenak arrakasta handia izan zuen eta ehun lagunetik gora izan zen parte hartzen, euretatik erdiak baino gehiago neska-mutilak. Edozein interesatuk hartu dezake parte bertan, kirol horren ezaugarriez jabetu eta han izango diren maisuen ikasgaiak eurenganatuz.

## berriak



### TRIATLOIA

**Delteco triatloi taldea hamar ordezkarirekin joan zen Onditzeko probara. Pello Osorok 25. postuan amaitu zuen sailkapen absolutuan eta Alejandro Altuna, bestalde, irabazlea izan zen beteranoen 2 mailan.**

### TXIRRINDULARITZA

**Debabarreneko Borja Abasolok sendo jarraitzen du Lehendakari Sariaren lidergoan. Seguran jokatutako proban bigarren postua eskuratu zuen, Hirumet taldeko Lastraren atzetik. Garaipenetik hain gertu izateak Joseba del Rio bigarrenari ateratzen dion tartea 33 puntura handitzea ekarri du. Horrez gain, Eibarkoek taldekako sailkapena irabazi zuten, Mikel Lopezosa (8.a) eta Jokin Etxaberi (12.a) esker.**




# Poesia errezitala gaur gauean

**Arrate Kultur Elkarteak martitzenean hasi eta atzora arte** ikusentzunezko bana eskaini du gauero, urteroko martxari jarraituta eta gaur, egitarauari agur esateko, poesia errezitala eskainiko dute Blanca Martinezek eta Gorka Errastik, 22.00etan San Andres elizako klaustroan (eguraldi txarra egingo balu, Arrate Kultur Elkartearen lokaletan): Kirmen Uriberen (euskeraz), Miguel Hernandezen (gazteleraz) eta Antonio Machadoren (gazteleraz) testuak errezitatuko dituzte, Naome Souden musikarekin lagunduta. Egitaraua honakoa da: "El niño Yuntero" (M. Hernández), "Las moscas" (A. Machado), "Maite zaitut, ez" (K. Uribe), "Abril Florecía" (A. Machado), "Elegía" (M. Hernández), "La saeta" (A. Machado), "Ezkutuko maitea" (K. Uribe), "A un olmo seco" (A. Machado), "La boca" (M. Hernández), "Los olivos" (A. Machado), "Maiatza" (K. Uribe) eta "Caminante no hay camino" (A. Machado).


*Blanca Martinez eta Gorka Errasti.*


*Usartzak udaletxeko arkupeetan eskainiko du kontzertua.* LEIRE ITURBE

# Kontzertua domekan

**Usartza Txistulari Taldeak kontzertua emango du** domekan, 12.30etan udaletxeko arkupeetan, Elena Perezek zuzenduta. Egitarauari jarraituta, joko dituzten piezak hauek izango dira: "Jerman" (orripeko, J.I. Ansorena mold.), "Murru" (arin-arin, J.I. Ansorena), "Hasierakoa" (kalejira, J.I. Ansorena), "Hiru euskal doinu" (Eduardo Mokoroa), "Lislorea" (polka, Pascual Perez, J.I. Ansorena mold.), "Arkupeetan" (alborada, J.I. Ansorena), "Bi austriar doinu" (Alex Iribar mold.), "Barrencalle" (Luis Aranburu) eta "El Molinero de Subiza" (Luis Aranburu mold.).

# Lambretta motorren erakusketa

**Bihar, zapatua, hasi eta hilaren 13ra arte**, Lambretta motorrak ikusgai egongo dira herriko hainbat dendatako erakusleihoetan, hurrengo asteburuan eta San Kristobalgo jaiekin bat eginda Eibarren egingo den Lambretta motorren hamargarren ediziorako girotzen joateko.



# Android euskaratzeko maratoia




**Android sistema eragilea darabilten gailuak euskaraz erabili** ahal izateko itzulpena egiten dihardu bolondres talde batek eta, azken itzulpenak egin eta beharra amaitu ahal izateko laguntza behar dute. Horregatik itzulpen maratoia antolatu dute uztailaren 12rako: "Andromatoia" izeneko ekimena CodeSyntax-eko bulegoetan (Eibarko Azitaingo industrialdean) izango da eta falta diren itzulpenak egin eta gero ospakizun txiki bat egongo dela adierazi dute antolatzaileek. Datorren barixakuan 15.00etan hasiko da maratoia eta joateko asmoa dutenei androideuskaraz@gmail.com helbidera edo @androideuskaraz twitter kontuan aurrez abisatzeko eskatu dute antolatzaileek.

# Txosnetako zozketako zenbaki sarituak

**Jaixak Herrixak Herrixandakok sanjuanetako zozketa** egin du eta hauek izan dira saria eramango duten zenbakiak: Deporren lau lagunendako afaria 1.637 (ordezkoa 1.146) zenbakia duenak eramango du eta Karrikan lau lagunek afaltzeko saria, berriz, 1.047 (ordezkoa 0504) zenbakia duenak jasoko du. Saritutako zenbakia duenak zuzenean jo beharko du Depor edo Karrikara eta noiz afaldu bertan hitzartu, uztailaren 15a baino lehen.

# Sostoaren otarraren zenbaki saritua



**Sanjuanetan Sostoa abesbatzak kontzertua eman zuen** San Andres elizako klaustroan eta, urteroko moduan jende asko joan zen abesbatzaren emanaldietara. Nahi zuenak han ikusgai ipini zuten otarraren zozketarako txartelak erosteko aukera izan zuen eta, behin zozketa eginda, zenbaki saritua 7.932 (larrosa kolorekoa) izan dela eman dute ezagutzera Sostoakoek. Erretserbarako zenbakia ere badute (9.777, urdin kolorekoa).

# Uztaileko argazki erakusketak







*Deporren eta Portalean ikusgai egongo diren erakusketak.*

**Uztailaren 31ra arte hiru argazki erakusketa** ikusteko aukera izango da beste horrenbeste tabernatan, Klub Deportiboko argazki taldekoen eskutik: El Ambigú kafetegian "Quiebros", Isabel Talledaren lanak daude ikusgai, Portalea tabernan Virginia Arakistainenak eta Deporren, berriz, Ripollet elkartearen argazkiak ipini dituzte. Horrez gain, Deporreko argazki taldeko Jose Luis Irigoienek "Baltiko" izenburukoa dauka martxan Santurtzin, Tabatan.

# Arrateko bertso-afarirako txartelak

**Irailaren 7an Arraten bertso afaria egingo da** (21.00etan Kantabria jatetxean), ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta. Aurten Sebastian Lizaso, Iker Zubeldia, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbio bertsolariek jardungo dute bertsotan eta afarirako txartelak lehenik eta behin bakarrik euskara elkarteko bazkideei salduko zaizkie, 29'50 eurotan (txartel bakarra bazkide bakoitzeko), uztailaren 8tik 19ra ...eta kitto!-ren bulegoan (Urkizu 11, solairuartea) 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara. Bazkide ez direnentzat, berriz, uztailaren 22tik aurrera ipiniko dituzte salgai, 30 eurotan Sagar Bitza, Kultu eta Kantabria tabernetan.




# Casanella Studio, erakusketetarako areto berria zabalik



**Aurreko barixakuaz geroztik erakusketa areto berria** dago martxan, Juan Gisasola kalean: Casanella Studio. Lehen arte-erakusketa gaurtik hasita eta irailaren 20ra arte bisitatzeko aukera egongo da, astelehenetik barixakura 18.00etatik 20.00etara.

## laburrak

### AEK-REN BARNETEGIAK

**Barnetegi mota ezberdinak antolatu ditu AEK-k: Arantzan (Nafarroan) uztaila eta abuztuan eta Foruan (Bizkaian) irailean, aste biko iraupena izango dute eta prezioa 486 eurokoa da (jatekoa eta lo egitea barne). Barnetegi ibiltaria bizikletaz, berriz, abuztuaren 3tik 18ra, Urduñatik Zarautzera izango da. Bizikleta gainean Aiaraldea, Arabako lautada, Urbasa, Handia, Ultzamako herri ederrak, Erronkari harana, Otsagi, Irati, Aralar... Honetan izena emateko azken eguna uztailaren 27a izango da. Informazio gehiagorako www.aek.org helbidera jo daiteke.**



### KOKEINEN BIDEOKLIPA

**Kokein taldeak bideoklipa estreinatu du aste honetan bertan: "Izan" diskoaren "Zain egon gabe" abestiaren bideoa Josu Guerrerok eta Josu Torrealdayk egin dute eta kokein.com taldearen webgunean eta Youtuben dago ikusgai.**

### ZINEA OPORRETAN

**Sanjuanaz geroztik eta irailera arte ez da pelikula emanaldi gehiago egongo Coliseo antzokian. Oporretatik bueltan ohiko martxari helduko diotela aurreratu dute arduradunek.**



# Amaña, eztanda egiteko prest

AURREKO ASTEKO BARIXAKUAN AURKEZTU ZUTEN AMAÑAKO JAI EGITARAUA JOSE ANTONIO ALBERDI GOMAK eta jai batzordeko beste kideek, babesle eta udaleko ordezkariek lagunduta, ekitaldira gerturatu ziren gonbidatu mordoaren aurrean. Krisi ekonomikoaren gainetik, berriz ere ekitaldiz betetako programa osatzea lortu dute antolatzaileek. Gainera, aurkezpen ekitaldian omenaldientzat tartea ere hartu zuten, hainbat oroigarri banatuta: **Mateo Guilabert** kazetariari, Kalamua judo taldeko **Manu Agirreri** eta aurten jaietako txupinazoa botatzeko gonbidatu duten Kezka dantza taldeko **Oier Araolazari** plaka bana eman zieten. Horrekin batera, urteetan Eibar Rugbi Taldea zuzentzen ibili den **Jon Egigureni** oroigarria eta erlojua oparitu zioten. Eta Eibar Kirol Elkarteko **Jaime Barriuso** zenaren alargun, arreba eta seme-alabei haren erretratu bana eskaini zieten, Amañako Jaien izenean. Jaiak gaur hasiko dira 19.00etan txupinazoa botatzean eta, betiko lez, gauerako kontzertu-kartela benetan erakargarria izango da EH Sukarra, Lendakaris Muertos eta Vendetta taldeak bata bestearen atzetik taula gainera igota.

**Txupinazoa**, Kezka Dantza Taldearen izenean Iñaki Barua eta Andoni Altzibar txistulariek botako dute, Oier Araolazak azaldu zuen moduan, *"biak betidanik egon direlako Kezkan eta txistulari barik dantzarik ez litzatekeelako egongo"*. Txupinazoaren ondoren kalejira hasiko da Ermuko Irulitxa txarangarekin eta 19.30etan Kezka Dantza Taldeak saioa eskainiko du Amañako plazan. 20.15etan umeendako jokoak eta entzierro txikia ailegatuko dira Gorritirekin eta orduan hasiko da kalez-kaleko kontzertua, elektrotxarangarekin. Kontzertua, berriz, 23.30etan hasiko da.



*Beste batzuren artean, Jaime Barriusok ere omenaldia jaso zuen.* S.H.




## Herri bazkari solidarioa

**Bihar zapatua** 11.30etan ekingo diote egitarauari El Corte Ingles Maskoten III. Lehiaketarekin, 3. solairuko terrazan. Ondoren umeendako Aire Libreko pintura lehiaketa hasiko da, Amañako plazan eta jarraian marrazki guztiak ikusgai ipiniko dira plazan. Herri-bazkarian paella solidarioa egingo dute eta jasotako dirua Irati Pérez Amañako neskatilak duen gaixotasunaren ikerkuntzarako emango diote Biziminari. Horrekin batera omenaldia egingo diote Antonia Olave, Gerardo Andraderen alargunari. Arratsaldean jarraituko dute jaiarekin: 16.30etatik 19.30etara umeendako parkea egongo da martxan: besteak beste gaztelu puzgarria, zezen mekanikoa eta espumaren jaia egingo dira, Kukulak taldearekin. Arratsalde eta gau betebeteak izango dira (ikus agenda 20. orrialdean). Eta **domekan** atzera ere goizetik hasiko dira jarduerak, mezarekin. Astebukaera Golden Apple Quartet laukote ospetsuaren emanaldiarekin agurtuko dute. Baina bakarrik asteburu honetarako agurra izango da, hurrengoan ere jaiak jarraituko du-eta.









# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**


Zorionak, MARIA JOSE, ekaiñaren 21ian bi urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat gurasuen partez.


Zorionak, OINATZ, astelehenian bederatzi urte egin dozuz-eta. Ondo pasau. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, ANETTE, bixar zure lehelengo urtebetetzian. Ze urte zoragarrixa zurekin albuan. Laztan haundi bat famelixaren partez.


Zorionak, UGAITZ, ekaiñaren 25ian lau urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.


Zorionak, NAIARA Garcia, haraiñegun bi urte egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat aittitta-amamaren partez.


Zorionak, LORE (hillaren 22xan zortzi urte egingo dozuz-eta) eta JON (urtetxua bete zenduan ekaiñaren 28xan). Ondo pasa. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, MALEN (ekaiñaren 28xan 13 urte) eta ENEKO (domekan 10 egingo dozuz). Asko-asko maite zaittuztegu eta segi holan! Ion eta amatxoren partez.


Zorionak, aittitta FELIX eta amama MARI CARMEN, ezkondu ziñaziela 50 urte bixar beteko dozuez-eta. Famelixa guztiaren partez.


Zorionak, IZARO eta LUR, aurreko martitzenian lau urte egin zenduezen-eta. Amama, Asier, Txus eta Aneren partez.


Zorionak, LIER, domekan hiru urte beteko dozuz-eta. Aitatxo, amatxo eta, batez be, Oierren partez.


Zorionak, JOKIN, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Ondo pasau zure eguna etxeko guztiekin eta, batez be, Beñatekin.


Zorionak, SILBIA, astelehenian urtiak bete zenduazelako. Ondo ospatu zure eguna.


Zorionak, ARRATE, aurreko domekan zazpi urte bete zenduan-eta. Jarraittu holan! Etxekuen partez.


Zorionak, AMAIA, astelehenian zazpi urte beteko dozuzelako. Muxu haundi bat famelixaren partez.

## hildakoak

- **Antonio Sarasketa Errasti.** 95 urte. 2013-VI-21.
- **Jose Guirao Mora.** 80 urte. 2013-VI-22.
- **Maria Esnaola Otegi.** 78 urte. 2013-VI-23.
- **Mª Teresa Mandiola Etxeberria.** 90 urte. 2013-VI-23.
- **Gonzalo Palacios Aguero.** 83 urte. 2013-VI-23.
- **Maria Perez Parra.** 87 urte. 2013-VI-24.
- **Antonio Rodriguez Nuñez.** 77 urte. 2013-VI-25.
- **Nicolas Eizmendi Bereziartua.** 52 urte. 2013-VI-26.
- **Elias Gonzalez Bocos.** 89 urte. 2013-VI-27.
- **Ignacio Martinena Salgado.** 69 urte. 2013-VI-28.
- **Jose Ruiz Cardenas.** 83 urte. 2013-VI-28.
- **Santiago Nuñez Torres.** 91 urte. 2013-VI-28.
- **Eladia Sanz Balbas.** 87 urte. 2013-VI-30.
- **Xole Azkue Fernandez.** 92 urte. 2013-VII-3.

## jaiotakoak

- **Jule Etxeberria Azpiazu.** 2013-VI-17.
- **Nadia Mujanovic Vivas.** 2013-VI-21.
- **Yassir Kouza Chiker.** 2013-VI-22.
- **Laura Arzuaga Petuchova.** 2013-VI-25.

***Hurrengo alea, hilaren 12koa, azkena izango da oporrak hartu aurretik.***
*Edozein informazio edo zorion agur gurean kaleratu nahi baduzue, izan ezazue kontuan.*

# BARIXAKUA 5

## AIRE ARTE

**11.00 / 23.00.** Aire Arte Azoka, Zona 10 elkarteak antolatuta. Errebalgo aparkalekuan.

## AMAÑAKO JAIAK

**19.00.** Txupinazoa: Iñaki Barua eta Andoni Altzibar (Kezka Dantza Taldea). Kalejira, Ermuko Irulitxa txarangarekin.
**19.30.** Dantzak, Kezka Dantza Taldearekin. Amañako plazan.
**20.15.** Umeendako jokoak, Gorritirekin.
**20.15 / 23.30.** Kalez-kaleko kontzertua, elektro-txarangarekin.
**21.15.** Entzierro txikia.
**23.30.** Kontzertua: EH Sukarra, Lendakaris Muertos eta Vendetta.

## POESIA EMANALDIA

**22.00.** Poesia errezitala, Blanca Martínez eta Gorka Errastiren eskutik: Kirmen Uriberen (euskeraz), Miguel Hernandezen (gazteleraz) eta Antonio Machadoren (gazteleraz) testuak errezitatuko dituzte, Naome Souden musikarekin lagunduta. San Andres elizako klaustroan.

# ZAPATUA 6

## AMAÑAKO JAIAK

**11.30.** El Corte Inglés Maskoten III. Lehiaketa (3. solairuko terrazan).
**12.15.** Umeendako Aire Libreko pintura, plazan.
**14.30.** Herri-bazkaria: Paella solidarioa, Irati Perez neskatilari laguntzeko. Omenaldia Antonia Olaveri.
**16.30 / 19.30.** Umeen parkea: gaztelu puzgarria, zezen mekanikoa eta espumaren jaia, Kukulak taldearekin.
**18.00.** Amaña-Urko-Amaña herri-krosaren irteera.
**19.30.** Pintxo-potea, hirugihar pintxoekin.
**20.00.** Nafarroako jotak, “Raíces Navarras”-ekin.
**20.00.** Umeendako txokolate-jana, gailetekin.
**21.15.** Entzierro txikia.
**23.00.** Helduen danborrada, Ermuko Irulitxa txarangarekin.
**23.50.** Su artifizialak, Pirotecnia Zaragozanarekin.
**00.00.** Danborradaren jarraipena. Omenaldia Kezka Dantza Taldeari.
**00.45.** Berbena, Ingenio Nafarroako orkestrarekin.

## GOLF TXAPELKETA

**16.00.** Golf txapelketa, Eibar Golf Pitch&Putt taldeak antolatuta. Ipuruako anexoan.

## SAN KRISTOBALGO JAIAK

**16.00.** Tute txapelketa.

# DOMEKA 7

## AMAÑAKO JAIAK

**11.00.** Auzoan hildakoen eta eibartar guztien aldeko meza, Amañako parrokian.
**12.00.** Salda eta txorizoa bildutako guztientzat, Amañako plazan.
**12.30.** Umeen danborrada, dorreetatik Amañako plazaraino, Ermuko Irulitxa txarangak lagunduta. Ogitartekoak eta freskagarriak parte-hartzaile guztientzat.
**13.30.** Lorontzi lehiaketa, Amañako plazan.
**17.30.** Umeendako txokolate-jana, gailetekin.
**18.00.** Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoen ikuskizuna.
**19.00.** Kale-antzerkia, Zurru Murru taldearen “Arkakusoaren zirkoa” lanarekin.
**19.00.** Txorizo-jana, txorizo ogitarteko eta edariekin.
**20.15.** Golden Apple Quartet laukote ospetsuaren emanaldia.
**22.00.** Jaien amaiera.

## KONTZERTUA

**12.30.** Usartza Txistulari Taldearen kontzertua, Elena Perezek zuzenduta. Udaletxeko arkupeetan.

# EGUENA 11

## NEGOBIDE TOPAKETA

**13.30.** Negobidek antolatutako topaketa. Portalean.

## SAN KRISTOBALGO JAIAK

**19.00.** Futbolin txapelketa (Aizarnako parkean).
**22.00.** Toka txapelketa. Xania tabernan.







*EH Sukarra, Lendakaris Muertos eta Vendetta izango dira gaur Amañan.*

# HOROSKOPOA

**ARIES**
Oso gustoko duzun gauza bat egiteko aukera izango duzu. Hainbeste denbora itxaroten egon eta gero, bazen garaia!

**TAURUS**
Bereziki berotuta ibiliko zara. Bikotekidea badaukazu, presta dadila; bestela, presta dadila mundu guztia! Gozatu aukeraz!

**GEMINI**
Zer uste duzu zarela? Denera ezin zara iritsi: ez estresatu. Oporrak hain gertu egonda, hobe duzu pixka bat erlaxatzea.

**CANCER**
Nola ipintzen zaren haserretzen zarenean! Hobe inor ez egotea zure alboan; bestela, komeriak! Eskerrak umorea lagun duzula.

**LEO**
Elnguruan gauzak nahiko nahastuta dabilkizu; ez zaitez gehiegi kezkatu, ahal duzun guztia egin baituzu konpontzeko.

**VIRGO**
Gauza materialei gehiegizko garrantzia ematen diezu, ez duzu uste? Gogoeta egin beharko zenuke eta jarrera aldatzen joan.

**LIBRA**
Atsedenik ez daukazu: Sanjuanak, Amañako jaiak, San Kristobalak... beste herrietakoak aipatu gabe. Hori da sasoia!

**SCORPIUS**
Bake bila ibiliko zara. Jendetzatik urruntzea nahiko duzu, isiltasunean murgiltzeko. Probatu al duzu yogarekin?

**SAGITTARIUS**
Berriketarako gogoarekin zabiltza. Ea zure berbaldiak jasateko norbait aurkitzen duzun. Grazia pixkatxo bat badaukazu!

**CAPRICORNIUS**
Printze-printzesa istorioa biziko duzu, Disneyren filme horiek bezalakoa. Zure esku dago horri amaiera polita ematea.

**AQUARIUS**
Esaten dituzun hiru gauzetatik, bi gezurra dira. Nola nahi duzu inork sinestea? Poker aurpegia ipintzen jakingo bazenu, zeozer.

**PISCIS**
Eguzkipean zaudenean neurriak hartzen dituzu? Kolore hori ez da batere normala: babes handiagoko krema behar duzu.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## erakusketak

✔ **Uztailaren 7ra arte**
***EINER RODRIGUEZ PONCEREN*** "Euskal Herriko panoramikak" argazki erakusketa. *Untzagako Jubilatu Etxean.*

✔ **Uztailaren 13ra arte**
***LAMBRETTA MOTORREN*** erakusketa. *Eibarko dendetan.*

✔ **Uztailaren 31ra arte**
***ISABEL TALLEDAREN*** "Quiebros" argazki erakusketa. *El Ambigú kafetegian.*
***RIPOLLET ELKARTEAREN*** argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*
***VIRGINIA ARAKISTAINEN*** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

✔ **Irailaren 20ra arte**
Arte erakusketa. *Casanella Studio-n (Juan Gisasola, 16)*




## farmaziak

✔ **barixakua 5**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✔ **zapatua 6**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✔ **domeka 7**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **astelehena 8**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **martitzena 9**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ *Alberdi (Zubiaurre, 9)*

✔ **eguaztena 10**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ *Cortina (Zubiaurre, 29)*

✔ **eguena 11**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ *Ugarte (Sta. Zezilia, z/g)*

✔ **barixakua 12**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ *Ibarrondo (Zeharkalea, 2)*

## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2 | | | 1 | | | |
| 7 | | 9 | | | 8 | 3 | | |
| | 5 | | | | | 1 | 6 | |
| | 9 | | 4 | | | | | 5 |
| 4 | | | | | | | | 6 |
| 2 | | | | | 7 | | 4 | |
| | 8 | 7 | | | | | 1 | |
| | | 3 | 5 | | | 6 | | 2 |
| | | | 7 | | | 4 | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 9 | 3 | 4 | 2 | 6 | 5 | 7 | 1 |
| 1 | 4 | 6 | 7 | 3 | 5 | 2 | 9 | 8 |
| 7 | 5 | 2 | 1 | 8 | 9 | 6 | 3 | 4 |
| 3 | 1 | 8 | 9 | 7 | 2 | 4 | 5 | 6 |
| 4 | 7 | 5 | 3 | 6 | 1 | 8 | 2 | 9 |
| 6 | 2 | 9 | 5 | 4 | 8 | 7 | 1 | 3 |
| 9 | 8 | 1 | 2 | 5 | 4 | 3 | 6 | 7 |
| 5 | 3 | 4 | 6 | 9 | 7 | 1 | 8 | 2 |
| 2 | 6 | 7 | 8 | 1 | 3 | 9 | 4 | 5 |

AURREKOAREN EMAITZA

## telefono jakingarriak

SOS deiak ........................ *112*
Pegora ............................ *010*
Udaletxea .......... *943 70 84 00*
Portalea............. *943 70 84 39*
Udaltzaingoa...... *943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa .......... *943 82 01 10*
KIUB ................ *943 20 38 43*
Epaitegia ........... *943 03 34 00*
Iberdrola ........... *901 20 20 20*
Naturgas............ *902 12 34 56*
DYA Larrialdiak .. *943 46 46 22*
Gurutze Gorria ... *943 22 22 22*
Mendaro osp...... *943 03 28 00*
Anbulategia ....... *943 03 25 00*
Torrekua ........... *943 03 26 50*
Errepideak......... *902 11 20 88*
Ertzaintza .......... *943 53 17 00*
Eusko Tren ........ *902 54 32 10*
Pesa.................. *902 10 12 10*
Taxiak............... *943 20 30 71*
........................ *943 20 13 25*
Alkohol.Anon. .... *629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen .. *650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR:** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


# 1. Etxebizitza

## 1.2. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Amañan. 2 logela, 2 komun, trasteroa eta garajea. 70 m². Tel. 636-458967. Ricardo.
– Pisua salgai Eibarko erdialdean. 3 logela, egongela, 2 komun, sukaldea eta trasteroa. Igogailua. Guztiz berriztua eta argitsua. 130 m². Tel. 626-203838.
– Pisua salgai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Eibarko erdialdean atikoa salgai. Logela bat. 17 m²ko terraza. Guztira 72 m² erabilgarriak. Berria. 220.000 euro. Tel. 647-952677.
– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 / 635-728510.

## 3.2. Errentan

– Pisua alokagai Errekatxun. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kalefakzioa. Dena jantzita. Sartzeko moduan. Tel. 659-757572.
– Pisua alokagai Mutrikun. 3 logela, 2 komun eta terraza. Dena kanpora begira eta eguzkitsua. Leku lasaia eta ondo komunikatua. Sartzeko prest. Tel. 943-201294 / 645-728317.
– Pisua behar da errentan Eibarren. Tel. 657-156254.
– Pisua alokagai Errekatxu, 6an. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta 7 m²ko terraza. Kalefakzioa. Altzariekin eta berriztua. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 649-521455.
– Urkizun logela biko pisua alokagai. Tel. 675-714404.
– Donostian udarako pisua alokagai. Hilabete osorako edo hamabostaldirako. dena kanpora begira. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 688-604025.

# 3. Lokalak

## 3.1. Salgai

– Martxan dagoen janari denda traspasatzen dut Elgetan. Tel. 683-630275.

## 3.2. Errentan

– Garajea itxia alokagai Urkizuko dorreetan. Tel. 616-959625.
– Garajea itxia alokagai Asua-errekan. Tel. 616-959625.

# 4. Lana

## 4.1. Lan bila

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 617-844142.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketak egiteko eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 638-884104.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-143804.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Prestakuntza eta esperientzia. Erreferentziak. Tel. 628-658538.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 608-147559.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 686-052084.
– Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 692-332871.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 675-578659.
– Sozio-sanitario teknikari euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera eta garbitzaile jarduteko. Tel. 650-455685.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 653-075865.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 603-608317.
– Gizon arduratsua eskaintzen da nagusiak, gaixoak edo dependienteak zaintzeko, baita ospitalean ere, eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 679-912841. Juan.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-526228.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Informeak. Tel. 608-487951.
– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako: sukaldari-laguntzaile, nagusiak zaintzeko. Tel. 688-302653.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako: etxeko lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu... Tel. 631-004374.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta hoteleko kamarera. Tel. 608-474923.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta edozein lanetarako. Tel. 695-804895.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Geriatria ezagutzak. Tel. 691-032502.
– Emakumea eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-054894.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-337083.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 633-551995.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Tel. 632-337083.
– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 634-887814.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 677-860971.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 605-720298.
– Pedagogiako 3. mailako ikaslea eskaintzen da udan umeak zaintzeko. Tel. 677-591982.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 654-566314.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 625-895460. Carmen Maria.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 606-502567.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 636-517025.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 685-771734.
– Emakumea eskaintzen da jatetxean, harategian edo hiltegian lan egiteko. Tel. 606-278923 eta 631-315925.
– Neska eskaintzen da etxeak garbitzeko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-054894.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauez ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Tel. 618-354218.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 616-457254.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 652-361252.
– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 648-054046.
– Emakume euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Goi mailako teknikaria Haur Hezkuntzan. Esperientzia. Tel. 660-522271.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 639-611454.
– Neska arduratsua eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 675-765376.
– Neska eskaintzen da lana egiteko. Asteburuak barne. Tel. 682-277198.
– Bi mutil eskaintzen dira altzariak igo eta jaisteko. Furgonetarekin. Tel. 660-213652.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka zein gauez. Tel. 631-385949.
– Gizonezkoa eskaintzen da txofer jarduteko: karnet guztiak. Disponibilitate osoa. Tel. 626-666977.

# 5. Irakaskuntza

## 5.2. Eskaintzak

– Unibertsitarioa eskaintzen da ingeles eta ikasketa-teknika klaseak emateko uztailean eta abuztuan. Esperientzia. Tel. 699-522514.
– Enpresa Zientzietan diplomatuak Ingeles, Matematikak eta Euskara klaseak emateen ditu. Mintzapraktika klaseak, baita ikasturtea gainditzeko ere. Tel. 662-110395.

# 6. Denetarik

## 6.1. Salgai

– Itzioko DBH 4. mailako liburuak erosiko nituzke. Tel. 618-491604.
– Itzioko DBH 3. mailako liburuak salgai. Tel. 618-491604.
– Gurpildun aulkia salgai. WC-arekin (pixontzia). 125 euro. Tel. 943-120308.
– Bigarren eskuko neoprenoak salgai. Gizonezkoen L tailakoa eta 12-13 urtekoentzako beste batzuk. Tel. 665-726203.
– Orbea bizikleta salgai. Laranja kolorekoa. 8-10 urteko umearentzako. Tel. 943-127368.
– DBHko 3. mailako eskolako liburuak erosiko nituzke. Tel. 665-707336.

## 6.4. Bestelakoak

– 3 urteko txakurra familia bila. Bodeguero andaluz arrazakoa, txikia eta zuria emango genuke adopzioan. Tel. 660-936862.







# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Oñati gestio heziketa

## Matrikula

uztailak 8tik 12ra

## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

## 2013-2014

### Eskeintza akademikoa

| MGEP | Oñati Gestio Heziketa |
|---|---|
| •Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak<br>•Automatizazioa eta Robotika Industriala<br>•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa<br>•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua<br>•Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa<br>•Mekatronika Industriala | • Administrazioa eta Finantzak<br>• Zuzendaritza Idazkaritza<br>•Salmenta Kudeaketa<br>•Nazioarteko Merkataritza |
| www.mondragon.edu/gmhz<br>gmhz.mgep@mondragon.edu<br>943 71 21 91 | www.mondragon.edu/ogh<br>info.enpresagintza@mondragon.edu<br>943 71 80 09 |

HETEL

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA

lanbide heziketa formación profesional

bista eder
clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



innovadental Clínicas

**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun





**Createch Medical-en**

etorkizuna gerturatzen dizugu,
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin

R.P.S. 53/13

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**
mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [ Azpeitia clínica dental - hortz klinika ]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**
mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com
www.innovadentalclinicas.com